

Funtsezko jarduerak:

Lehendabizi, Imahaia teknikoki diseinatu behar da, hau da, zer material erabiliko dugun atal bakoitzarako zehaztu behar da.

Ondoren, material horiek hornitzen dituzten enpresekin kontaktuan jarri behar gara eta bezeroaren enkarguaren arabera, materiak kantitate bat eskatu.

Jarraitzeko, material guztiak bildu eta Imahaia ekoiztu behar da. Imahaia prest dagoenean, frogatu behar da eta dena ondo baldin badago, bidaltzeko prest jarriko dugu.

Bezeroak eskatutako Imahai kopurua ekoiztu ondoren, eta bidaltzeko prest jarri ondoren, garraio-enpresari emango genioke mahaia eta bezeroarengana eramango lituzkete.

Bestalde, oso garrantzitsua da enpresaren web-gunea ondo mantentzea, bezero gehiako erakartzeko. Web-gunea egunero mantendu beharko da, bezeroen galderak eta arazoak konpondu behar direlako eta bezero berriak erakarri behar direlako.

